


A1 MAILA



Otxandiotik Iruñera

20. Korrika: Otxandiotik Iruñera

Ataza hauen helburu nagusiak dira, batetik, Otxandio eta Iruñea (Korrikaren abiapuntua eta helmuga, hurrenez hurren) hobeto ezagutzea, eta, bestetik, ikasleak Korrikaren zain jartzea, norbere herrira iritsi arte gaiari buruzko panelak eginez. Aurrekoaz gain, mailari dagozkion hainbat edukiri erreparatzea ere izango dugu helburu, jakina.

Helburuoi heltzeko, ondoko atazak proposatzen dizkizugu.



A. "Otxandiotik Iruñera" jokia (3. or.)



Ataza honen helburua da Otxandio eta Iruñea (Korrikaren abiapuntua eta helmuga, hurrenez hurren) hobeto ezagutzea. Hasteko, ikasleek herri horiei buruz dakitena argituko dugu; ondoren, Otxandiori eta Iruñeari buruzko ezagutza handitzen lagunduko digun jokia egingo dugu; amaitzeko, jokoari esker ikasi duguna komentatuko dugu.

HELBURUAK

- ▶ Otxandio eta Iruñea hobeto ezagutzea.

B. Korrikari buruzko panelak eta testigantzak (12. or.)



Ataza honen helburu nagusia da ikasleak Korrikaren zain jartzea, lasterketa norbere herrira iritsi arte. Horretarako, egunez egun berrituko ditugun panelak egingo dituzte ikasleek. Paneletarako proposatzen den edukietako bat testigantzak direnez, Korrikaren dokumentaleko pasarte bat ikusiko dugu.

HELBURUAK

- ▶ Esperientzia pertsonalak idatziz kontatzea.
- ▶ Ahozko narrazioak entzun eta ulertzea.
- ▶ Datak idazten ikastea.
- ▶ Aditz laguntzailea orainaldian berrikustea.



Mintzatu



Bideoa ikusi



Kanta



Idatzi



Entzun



Irakurri



Jolasa



Ariketa



A. ATAZA: "20. Korrika: Otxandiotik Iruñera" jokia

- Ikasleek, binaka, "Otxandio eta Iruñea ezagutzen dituzu?" ariketaren galderei erantzungo diete (4.- 5. or.).
- Erantzunak talde handian alderatuko eta komentatuko ditugu.
- "20. Korrika: Otxandiotik Iruñera" ikus-entzunezkoa jarri eta izen bereko jokia egingo dugu. Instrukzioak eta beharrezko baliabideak, 6. eta 7. orrialdeetan daude.

OHAR GARRANTZITSUA:

Jokoan erabiliko den ikus-entzunezkoa A1 eta A2 mailetakoko ikasleentzat zailegia denez, jokoan hasi aurretik honelako zerbait esango genieke ikasleei: *"Jokoan entzungo dugun testua zaila denez, jokia amaitu ondoren testu errazagoa irakurriko dugu entzun dugunaz jabetzeko. Jokoan garrantzitsuena galderak eta erantzunak izango dira, eta horietan sortuko diren zalantzak, irakaslearen laguntzaz argituko ditugu agertu ahala"*.

Galderak eta erantzunak pantailan nahi beste denboraz ikus ditzakegunez, aukera erraza izango dugu horien esanahia lasai argitzeko.

- Talde handian, ozenki, "Otxandiotik Iruñera" testua irakurriko dugu (8. or.).
- Ikus-entzunezkoa berriro ikusiko dugu. Ikusi ondoren, ikasleek, banaka, "Zer ikasi duzu gaur?" ariketako galderei erantzungo diete (9. or.). Erantzunak talde handian komentatuko ditugu.

OHARRA:

Ikus-entzunezkoaren gidoia 9.- 10. orrialdetan daukazu.



OTXANDIO ETA IRUÑEA EZAGUTZEN DITUZU?



20. Korrika Otxandiotik Iruñera joango da. Ezagutzen dituzu bi herri horiek? Zer esan dezakezu haiei buruz?

La 20ª Korrika irá de Otxandio a Iruñea. ¿Conoces esos dos pueblos? ¿Qué puedes decir sobre ellos?


A. ZER DAKIZU OTXANDIORI BURUZ¹?

- Egon zara inoiz Otxandion? Entzun duzu herri honen berri? Non (lagunek kontatuta, telebistan, prentsan...)?

.....
.....
.....

- Non dago? Zein **herrialde**tan²? Kokatuko duzu mapa honetan?

.....
.....



- Nolakoa da?

.....
.....

- Herri euskalduna da?

.....
.....

- Badakizu zerbait interesgarria Otxandiori buruz?

.....
.....
.....



1. ...-ri buruz: *sobre...*


2. Herrialde: *provincia*



B. ZER DAKIZU IRUÑEARI BURUZ?

- Non dago Iruñea? Kokatuko duzu mapa honetan?

.....
.....
.....



- Nolakoa da?

.....
.....
.....

- Herri euskalduna da?

.....
.....
.....

- Zein dira, zure ustez, Iruñeko **kontu**³ interesgarrienak?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....



3. Kontu: asunto, cuestión, tema

Jokoa prestatu.

- ▶ Ikasleek binaka jokatuko dute.
- ▶ Jokoa hasi aurretik, 7. orrialdeko **billeteak eta apustuak egiteko fitxak fotokopiatuko ditugu. ikasle adina kopia aterako ditugu** (esaterako, 10 ikasle, 10 kopia).
- ▶ Jokoa arauak azaltzeaz batera, billeteak banatuko ditugu jokalarien artean. **Bikote bakoitzari 170 euskorrika emango diogu** (orri bateko billeteak); **gainerako billeteak irakasleak gordeko ditu**. Irakasleak banku-rola izango du jokoa. Horrez gain, **apustuak egiteko bina fitxa** emango dizkiegu jokalariei: “Baietz asmatu” eta “Ezetz asmatu”.
- ▶ Jokoa hasi aurretik, lehenengo galderari zein bikotek erantzungo dion erabakiko dugu.

Jokoaren arauak.

- ▶ **“Otxandiotik Iruñera” ikus-entzunezkoa jarriko dugu.**
- ▶ Pantailan **lehenengo galdera agertzen denean, ikus-entzunezkoa etengo dugu.**
- ▶ Galderari erabaki dugun bikoteak erantzun beharko dio, eta erantzuna pantailan agertuko diren aukeren artean hautatu beharko du. Baina balizko **erantzunak pantailan ikusi aurretik, gainerako bikoteek apustua egin beharko dute erantzun behar duten jokalariek asmatuko duten ala ez**. Pentsatzen badute ez dutela asmatuko, jokatzen dituzten euskorrikak mahai gainean jarriko dituzte, “Ezetz asmatu” fitxaren azpian; asmatuko dutela pentsatzen badute, aldiz, “Baietz asmatu” fitxaren azpian jarriko dituzte euskorrikak. **Apusturik handiena 50 euskorrikakoa izan daiteke.**
- ▶ **Erantzuna eman behar duten jokalariek ezin izango dute apusturik egin.**
- ▶ Apustu guztiak mahai gainean daudela, ikus-entzunezkoa martxan jarriko dugu berriro galderen erantzun posibleak agertu arte. **Behin erantzunak pantailan daudela, ikus-entzunezkoa etengo dugu berriro.**
- ▶ Erantzuna eman behar duten jokalariek **haien ustezko erantzun zuzena zein den esango dute.**
- ▶ Ikus-entzunezkoa martxan jarriko dugu erantzun zuzena ezagutzeko eta, jarraian, **eten egingo dugu apustuak ordaintzeko**: apustua irabazi dutenek, jarritako euskorrikak jasoko dituzte eta bankuak beste horrenbeste eman beharko die (50 euskorrika jokatu badituzte, esaterako, horiek jaso eta beste 50 izango dituzte); apustua galdu dutenek, berriz, jokatutakoa galduko dute eta haien euskorrikak bankuak hartuko ditu.
- ▶ Apustuena argitu ondoren, ikus-entzunezkoa martxan jarriko dugu beste galdera bat agertu arte. Galdera bakoitzari jokalaria-bikote batek erantzun beharko dio.
- ▶ Jokoa amaitzen euskorrika gehien dituen bikotea izango da irabazlea.





OTXANDIOTIK IRUÑERA

Otxandio Bizkaiko herri txiki bat da. Bizkaiaren hego-mendebaldean dago, 12 km² dauzka, eta 1.300 lagun bizi dira bertan.

Otxandio Urkiolako Parke Naturalaren ondoan dago. Herritik, Orixol, Anboto eta Gorbeia ikusten dira. Otxandio Urkiola ibaiak **zeharkatzen**¹ du. Kantauri itsasoa hurbil dago, baina Urkiola ibaiaren urak Mediterraneoraino joaten dira.

Otxandiok klima hotza du, kontinental. Egunaren eta gauaren artean, eta neguaren eta udaren artean tenperatura-alde handiak izaten dira. Bizkaiko herrien artean, altuen**etakoa**² eta hotzenetakoa da.

Iruñea Nafarroa Garaiko hiriburua da. Herrialdearen erdialdean dago eta Arga ibaiak zeharkatzen du. Iruñeak 23,55 km² dauzka eta, Bilbo eta Gasteizen atzetik, Euskal Herriko hirugarren udalerrri jendetsuena da: 196.166 biztanle dauzka.

Iruñea Euskal Herriko hiriburu historikoa da, eta ezaguna da mundu osoan **bertako**³ jai nagusiengatik. Jende askok ez daki, baina Iruñeko patroia San Saturnino da, III. mendeko misiolari tolosarra. Baina Iruñeko jai nagusiek, sanferminak dira.

Otxandio Bizkaiko herri zaharrenetako bat da. Hirigune historikoan, XVI. eta XVII. mendeetako etxe batzuek zutik daude oraindik. Plaza neoklasikoa da, eta inguruan Santa Marina eliza, udaletxea, pilotalekua eta bolatokia daude.

Herriaren beste **muturrean**⁴, Andikona plaza ezaguna dago. Andikona plazak gerrako lehenengo bonbardaketa zibila sufritu zuen, 1936ko uztailaren 22an. Jaiak ziren eta jende asko zegoen plazan. Bonbardaketak **57 hildako**⁵ eta **zauritu**⁶ asko utzi zituen, gehienak umeak.

Iruñea hiria K.a. 74. urtean fundatu zuen Pompeyo jeneral erromatarrak. Horregatik, hiriaren lehenengo izenak Pompaelo eta Pompelo izan ziren. Erromatarren ondoren, bisigodoak etorri ziren, eta gero musulmanak. IX. mendean, musulmanen okupazioa amaitu eta gero, Iruñea berriro gobernatu zuten bertakoek, Arizta familiakoek, hain zuzen. 1512an, Albako dukeak konkistatu zuen hiria.

Otxandio herri euskalduna da. Euskararen ezagutza oso handia da; herritarren % 75



euskaldunak dira, eta % 14 ia euskaldunak. Ezagutza handia da, bai, baina erabilera txikiagoa da: **helduen**⁷ % 32 bakarrik bizi dira euskaraz.

Otxandion bezala, Iruñeko **jatorrizko**⁸ hizkuntza euskara da. Iruñeko jatorrizko euskalkia, hegoaldeko goi-nafarrera, XIX. mendean galdu zen.

Gaur egun, Iruñeko biztanleen % 8,70 euskaldunak dira, % 10,6 ia euskaldunak eta % 80,7 erdaldun hutsak (ez dakite euskaraz).

Erabilerak, 1997an bezala jarraitzen du: % 2,5-2,9koa da.

20. Korrika Otxandiotik Iruñera joango da. Iruñetik Korrika guztiak pasatu dira, eta lau aldiz hasi eta bukatu da bertan. Otxandiotik ez dira Korrikaren edizio guztiak **igaro**⁹. Baina Otxandiok ere maite du Korrika. Sortzaileetako bat, Joseba Kanpo AEKide **ohia**¹⁰, Otxandiokoa zen.

Martxoaren 30ean, martxan jarriko da Korrika Otxandion, eta apirilaren 9an iritsiko da Iruñera. Hamar egunez, pozez eta ilusioz beteko du Euskal Herri osoa.



1. **Zeharkatu:** *atravesar*
2. **...-enetako:** *de los/las más ...*
3. **Bertako:** *del lugar*
4. **Mutur:** *extremo*

5. **Hildako:** *muerto/a*
6. **Zauritu:** *herido/a*
7. **Heldu:** *adulto/a*
8. **jatorrizko:** *original*

- 9 **Igaro:** *pasar*
10. **Ohi:** *ex*



ZER IKASI DUZU GAUR?

Jolasean, Otxandio eta Iruñeari buruzko kontu asko entzun ditugu. Horietako batzuk ezagutuko zenituen; beste batzuk, aldiz, berriak izango dira. Zer ikasi duzu herri hauei buruz?

Durante el juego, hemos oído muchos temas y datos sobre Otxandio e Iruñea. Algunos de esos los conocías; otros, en cambio serán nuevos. ¿Qué has aprendido sobre estos pueblos?

A. ZER DAKIZU ORAIN OTXANDIORI BURUZ? ZER IKASI DUZU?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

B. ZER DAKIZU ORAIN IRUÑEARI BURUZ? ZER IKASI DUZU?

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....





OTXANDIOTIK IRUÑERA

Otxandio Bizkaiko herri txiki bat da. Herrialdearen hego-mendebaldean dago, hurbilago Gasteizetik Bilbotik baino. Herriak 12 km² baino ez dauzka, eta 1.300 lagun bizi dira bertan. Otxandio Urkiolako Parke Naturalaren ondoan dago, basoz eta mendiz inguratuta. Herritik bertatik, Orixol, Anboto eta Gorbeia ikus daitezke. Hala ere, ingurune menditsuan egon arren, tontor bakarra dago udalerrian.

1. Zein da Otxandioko tontor bakarra?

Mirugain / Kilimanjaro / Mont Blanc / Aneto

Otxandio Urkiola ibaiak zeharkatzen du. Kantauri itsasoa kilometro gutxira dago, baina Urkiola ibaiaren ur bidaiariek nahiago dute Mediterraneo urruneraino joan.

Otxandiok klima hotza du, kontinentala. Egunaren eta gauaren artean eta neguaren eta udaren artean tenperatura-alde handiak izaten dira. Izan ere, Bizkaiko herrien artean altuenetakoa eta hotzenetakoa da, Ubiderekin batera.

2. Zein altitudetan dago Otxandio?

554 metrora / 753 metrora / 358 metrora / 815 metrora

Iruñea Nafarroa Garaiko hiriburua da. Herrialdearen erdialdean dago, Iruñerria eskualdean, Arga ibaiak zeharkatua. Iruñeak 23,55 km² dauzka eta Euskal Herriko udalerrri jendetsuenetakoa da.

3. Zenbat jende bizi da Iruñean?

Bilbon baino gehiago / Gasteizen baino gehiago / Donostian baino gehiago / Maulen baino gutxiago
196.166 biztanlerekin, Euskal Herriko hirugarren udalerrri jendetsuena da, Bilbo eta Gasteizen atzetik. Iruñea Euskal Herriko hiriburu historikoa da, eta ezaguna da mundu osoan bertako jai nagusiengatik.

4. Nor da Iruñeko patroia?

San Donato / San Saturnino / San Fermin / San Francisco Javier

Jende askok ez dakien arren, Iruñeko patroia San Saturnino da, III. mendeko misiolari tolosarra. Baina Iruñeko jai nagusiek, sanferminek, beste santu baten izena hartzen dute: Amienseko San Ferminena, hain zuzen ere.

5. Zein harreman izan zuten San Ferminen eta San Saturninok?

Aita-emeak ziren / Futbol-talde berean jokatzen zuten / San Saturninok San Fermin bataiatu zuen / Ez zuten inolako harremanik izan.

Elezaharren arabera, San Fermin Iruñean jaio zen. Firmo izeneko senatari pagano baten semea zen. San Saturninok bataiatu omen zituen aita-emeak. Dena den, ikerketa historikoen emaitzek zalantzan jartzen dute San Fermin benetan existitu zen, askoz geroagoko asmazioa baitirudi.

Otxandio Bizkaian sortutako lehen herrietako bat da. Lehenengo aipamena, 1115ean azaldu zen Antso VII.a Nafarroako erregeak sinaturiko dokumentu batean. Mende bat geroago, 1236 eta 1254 artean, Hiri-Gutuna jaso zuen Diego Lopez Harokoaren eskutik.

Otxandioko hirigune historikoan XVI. eta XVII. mendeetan harlanduz egindako etxe batzuek zutik diraute oraindik ere. Plazaren eraikuntza neoklasikoa da. Haren inguruan daude Santa Marina eliza, udaletxea, pilotalekua eta bolatokia. Herriaren beste muturrean, Andikona plaza ezaguna dago.

6. Zergatik da ezaguna Andikona plaza?

Oteizaren eskultura bat bertan dagoelako / Felipe Arrese Beitia idazlea bertan jaio zelako / Gerrako 1. bonbardaketa zibila bertan izan zelako / Euskal Herriko plaza zaharrena delako.

Andikona plazak gerrako 1. bonbardaketa zibila jasan zuen, 1936ko uztailaren 22an. Herria, jaietan murgilduta, jendez beteta zegoen. Bonbardaketak 57 hildako eta zauritu ugari utzi zituen, haietako gehienak umeak.

Otxandio herri zaharra da, baina are zaharragoa dugu Nafarroako hiriburua. Izan ere, Iruñea hiria k.a. 74. urtean fundatu omen zen herrixka baskoi baten gainean.

7. Nork fundatu zuen Iruñea?

Eneko Aritza erregeak / Pompeyo jeneral erromatarrek / Frantzisko Xabierkoa santuak / Karlomagno enperadoreak. Fundatzaileak, Pompeyo jeneral erromatarrek, Pompaelo eta Pompelo izenak eman zizkion hiriari.

Erromatarren ondoren, bisigodoak nagusitu ziren Iruñean; horien ostean, musulmanak.



IX. mendean, musulmanen okupazioa amaitutakoan, Iruñea bertako buruzagien menpe geratu zen berriro. Arizta leinukoak ziren. Zazpi mendez egon zen Iruñea nafar agintarien esku: hasieran, Iruñeko Erresuman; ondoren, Nafarroako Erresuman.

8. Zein urtetan konkistatu zuten gaztelarrek Iruñea?

1420an / 1512an / 1331n / 1269an

1512an, Albako dukeak konkistatu zuen hiria. Nafar erregeek, saiatu arren, ezin izan zuten Iruñea berreskuratu. Hiria eta erresuma osoa Gaztelaren mende geratu ziren.

Otxandio herri euskalduna da. Bertako herritarren artean, euskararen ezagutza oso handia da; 2001eko datuen arabera, herritarren % 75 euskaldunak dira, eta % 14 ia euskaldunak.

9. Helduen artean, zenbat jende bizi da euskaraz Otxandion?

% 60 inguru / % 50 inguru / % 40 inguru / % 30 inguru

Alabaina, ezagutza handia izan arren, ez da gauza bera gertatzen erabilerarekin. Azkeneko kale-inkesten arabera, helduen % 32 baino ez dira bizi euskaraz. Otxandion, bizkaieraren azpieuskalki bat erabiltzen da. Euskalki horrek Araba aldeko euskararen du jatorria.

10. Nola esaten da Otxandion "indar handiz"?

Arrapaladan / Inkernuaz / Burrumba / Okarana

Otxandion bezala, Iruñeko jatorrizko hizkuntza euskara da.

11. Zein izan da Iruñeko jatorrizko euskalkia?

Iparraldeko behe-nafarrera / Hegoaldeko goi-nafarrera / Goitibeherako nafarrera / Batek daki nongo nafarrera

Bertako jatorrizko euskalkia, hegoaldeko goi-nafarrera, belaunaldiz belaunaldi transmititu zen, XIX. mendean galdu zen arte. Gaur egun, 2006ko erroldaren arabera, Iruñeko biztanleen % 8,70 euskaldunak dira, % 10,6 ia euskaldunak eta % 80,7 erdaldun hutsak. Erabilerari dagokionez, bere horretan jarraitzen du 1997az geroztik: % 2,5-2,9ren bueltan.

Otxandio eta Iruñea ez daude elkarren ondoan; Euskal Herrian egoteaz aparte, ez dute antzekotasun handirik... Aurten, baina, aldean eta distantziaren gainetik, Otxandio eta Iruñea bat egingo ditu euskaldunok osatutako giza kate erraldoi batek: Korrikak.

12. Ondoko hitzen artean, zein dira korrikaren sinonimoak?

Galapan / Karran / Antxintxika / Arineketan

Euskarak hamaika hitz dauka oinez abiada handian ibiltzeari esateko: arineketan, lasterka, karran, galapan, antxintxika... Baina era bakarra du Euskal Herri osoa martxan jartzen duen herri-ekimena izendatzeko: Korrika.

Aurtengo edizioan, Otxandiotik Iruñera bidaiatuko du euskararen lekukoak. Iruñeak lotura estua izan du beti Korrikarekin. Aurtengo edizioa bertan amaituko den laugarrena izango da.

13. Zenbat Korrika hasi dira Iruñean?

Bost / Lau / Bi / Bat ere ez

Eta beste horrenbeste Korrika hasi dira Nafarroako hiriburuan.

14. Zein lotura dauka Otxandiok Korrikarekin?

Lehenengo Korrika Otxandion amaitu zen / Korrika hitza Otxandion asmatu zen / Sortzaileetako bat Otxandiokoa da / Korrikalari onenak Otxandiokoa dira.

Otxandiok ez du izan Iruñearen zorte bera. Korrikaren edizio guztiak ez dira igaro izan bertatik. Halere, Otxandiok ere oso bere sentitzen du Korrika. Izan ere, sortzaileetako bat, Joseba Kanpo AEKide ohia, bertakoa zen.

15. Noiz hasiko da 20. Korrika?

Martxoaren 25ean / Martxoaren 30ean / Apirilaren 1ean / Apirilaren 9an

Martxoaren 30ean, martxan jarriko da Korrika, Otxandion, eta apirilaren 9an iritsiko da Iruñera. Bitartean, hamar egunez, pozez eta ilusioz beteko du Euskal Herri osoa.



B. ATAZA: Korrikari buruzko panelak eta testigantzak

Panelai buruzko hausnarketa egin

- Ikasleei eginkizuna aurkeztu ondoren (Korrikari buruzko panelak egin nahi ditugula, hain zuzen ere), talde handian, "Korrika badator!" panel-eredua aztertuko dugu: nolakoa den, zer daukan... (13. or.).
- Ikasleek, bakarka, "Efemerideak" irakurri eta datak euskaraz idatziko dituzte (14. or.).

ERANTZUNAK:

1. Martxoaren 15ean; 2. 1892an; 3. 1962an; 4. 1991n; 5. martxoaren 24an;
6. Urtero.

- Ikasleek, bakarka, "Testigantza" testua irakurri eta hutsuneak beteko dituzte (15. or.).
- Aurreko ariketa talde handian zuzendutakoan, binaka jarriko gara, "Daniren testigantza" bideo-pasartea ikusiko dugu eta testu idatzian dauden datu okerrak identifikatuko ditugu.

ERANTZUNAK:

Aurreko bi ariketen erantzunak 19. orrialdean dituzu.

- Ikasleek, bakarka, "Testigantzari buruz" ariketako galderari erantzungo diete (16. or.). Erantzunak talde handian komentatuko ditugu.

Panelak nola egin planifikatu

- "Euskaltegiko Korrika-panela" orriko azalpenak ozen irakurriko ditugu eta, talde handian, panela egiteko plana diseinatuko dugu. Ideiak arbelean jasoko ditugu (17. or.).

OHARRA:

17. orrialdean, ikasleei lana bideratzen laguntzeko ideia batzuk dituzu.

Panela egingo dugu eta, Korrika Iruñera iritsi bitartean, paneleko edukiak aldatuz joango gara, adostutako planari jarraiki.

Panelak egin eta jarri

- Lanak antolatu eta banatu ondoren, panelak egingo ditugu.

EUSKALTEGIKO KORRIKA-PANELAK

Planifikatu

- ➔ Taldetxotan, Korrika etorri bitarteko paneletan nolako edukiak sar ditzakegun pentsatuko dugu. Ideiak gainerakoei azaldu beharko dizkiegu (*en pequeños grupos, pensaremos qué contenidos podemos añadir en los paneles hasta que llegue la Korrika. Les deberemos explicar las ideas al resto*).
- ➔ Ideiak egiten hasteko, ikusi panel hau eta erantzun beheko galderari (*mira este panel, y responde a las preguntas*).



- Zer dago panelean?

.....
.....
.....

- Zer sartu ahal dugu gure panelean? **Zerrendatu⁴** ideiak.

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

4. zerrendatu: enumerar

PANELAREN ATALAK, BANAN-BANAN:

1. EFEMERIDEAK:

Panel hau martxoaren 15ean eginda dago, eta egun horretako efemeride batzuk agertzen dira. Irakurri testua, eta idatzi falta diren datak euskaraz.

Este panel es del 15 de marzo, y aparecen unas efemerides de ese día. Lee el texto y escribe en euskera las fechas que faltan.

Efemerideak

..... (1).


- ➔ **Kristo aurreko**⁵ 44. urtean, **senatari**⁶ erromatar batzuek Julio Cesar hil zuten.

- ➔ (2), Liverpool F.C. futbol-taldea fundatu zen Liverpool hirian.

- ➔ (3), Quino komikilari argentinarrek Mafalda pertsonaia **sortu**⁷ zuen.

- ➔ (4), 7. Korrika hasi zen Gasteizen. Korrika hura, Baionan amaitu zen
..... (5).

- ➔ Martxoaren 15ean, (6), egun hauek **ospatzen**⁸ dira, besteak beste:
 - Kontsumitzaileen **nazioarteko**⁹ eguna,
 - zakilaren**¹⁰ eguna, txerriaren eguna...



1. El 15 de marzo
2. En 1892
3. En 1962
4. En 1991
5. ... el 24 de marzo.
6. ... cada año

5. **Kristo aurreko**: *antes de Cristo*
6. **Senatari**: *senador, -a*
7. **Sortu**: *crear*

8. **Ospatu**: *celebrar*
9. **Nazioarteko**: *Internacional*
10. **Zakil**: *pene*

PANELAREN ATALAK, BANAN-BANAN:

2. DANI ALVAREZEN TESTIGANTZA

Irakurri Dani Albarezen testigantza, eta bete hutsuneak. Horretarako, beheko aditz-laguntzaileak erabili beharko dituzu.

Lee el testimonio de Dani Alvarez, y rellena los huecos. Para ello, tendrás que utilizar los verbos que aparecen abajo.

Testigantza



Dani naiz, As Pontesekoa, eta 39 urte ditut.

As Pontes Galizian A Coruña ondoko herri txiki bat da. Euskal Herrira orain dela 21 urte etorri kazetaritza ikastera. Beraz, Galizian baino denbora gehiago pasatu dut hemen. Hasiera batean, ez nuen hemen gelditzeko asmorik, baina Radio Euskadin hasi nintzen lanean, eta ordutik Bilbon bizi Egun, goizero "Boulevard" **irratsaioa**¹¹ prestatzen dut, eta, noizean behin telebistan ere gauzak egiten Azkena izan da "El lector de huesos" saioa, Paco Etxeberriarekin batera.

Arnau izeneko seme bat, hiru urtekoa.

Euskara ikasten 2001. urtean hasi AEKn, bi ordu egunean. Bostgarren urratsera arte jarraitu, baina orduan "Ganbara" irratsaioa **gidatzen**¹² hasi nintzenez, akabo klaseak. Laster, bueltatu nintzen euskara ikastera, AEKn bertan, irakasle batekin.

Arnau euskaraz bizi da eskolan, eta seguru nago bizitzan zehar euskaraz biziko dela. Eta nik nahi dut Arnaurekin euskaraz hitz egin, argi dudalako nire semeak euskara jakin behar duela. Egunen batean, berak **erabakiko**¹³ zein hizkuntza erabiliko duen, baina bitartean ikasiko du, eta gure artean mintzapraktika egingo dugu!

Ikaragarri gustatzen heavy musika, E.H. Sukarra da nire euskal talde **kutuna**¹⁴, eta ulertu nahi dut zer esaten duten haien abestietan.

Hori bai, nire eguneroko bizitza gaztelaniaz egiten batez ere. Bilbon bizi naiz, eta hiri honetan oso erraza da euskararik gabe bizitzea.

Musikak ematen dit bizitzeko energia. Hamar urte nituenetik entzuten Heavy Metala, eta **konturatu**¹⁵ naiz abestiek munduari buruzko ikuspegi pila bat ematen dituztela. Ikuspegi horiek interesatzen niri, eta hemen, asko, euskarazkoak dira. Euskaraz ari dira sortzen gauza modernoak eta freskagarriak, baina gero, ez zaie **oihartzunik**¹⁶ ematen gure irratietan, telebistetan edo egunkarietan.

Kultur apustu batzuk klandestinitatean daude. Eta nik odola, burdina eta adarrak nahi ditut, baita euskaraz ere.

Niretzat, heavyak euskara aberatsagoa egiten du, koloretsuagoa, eta gazte pila bat **erakartzen**¹⁷ ditu. Euskadi irratian ezin heavya entzun, eta aukera horrekin, beste erreferentzia batzuk sortzen, batez ere, ingelesez.

DA	DIRA	DU	NAIZ	NINTZEN	ZAIZKIT
DAGO	DITUT	DUT	NAIZ	NUEN	
DAUKAT	DITUT	DUT	NINTZEN	ZAIT	

11. **Irratsaio:** programa de radio

12. **Gidatu:** dirigir

13. **Erabaki:** ecidir

14. **Kutuna:** preferido,-a

15. **Konturatu:** darse cuenta

16. **Oihartzun:** (hacerse) eco

17. **Erakarri:** atraer

3. DATU OKERRAK

Paneleko testigantzan irakurri dituzun datu batzuk ez dira zuzenak. Entzun arretaz Daniren testigantza, eta entzun bitartean, azpimarratu datu okerrak.

Algunos de los datos que has leído en el testimonio del panel no son correctos. Escucha con atención el testimonio de Dani, y mientras lo escuchas, subraya los datos erróneos.

TESTIGANTZAN IRAKURRI DUT.....

1. "Orain dela **21 urte** etorri nintzen"
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.

BAINA DANIK ESAN DU:

"Orain dela **20 urte** etorri nintzen"

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4. TESTIGANTZARI BURUZ

Aurreko ideien artean, aukeratu interesgarriena eta azaldu labur:

Entre las ideas que has mencionado, elige la más interesante y explícala brevemente:

➔ Ideia interesgarrienak:

.....

.....

.....

.....

.....

➔ Zein ideia aukeratu duzu? Zergatik iruditzen zaizu interesgarria?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Planifikatu

PANEL TXUKUNAK EGIN NAHI BADITUGU, LANA ONDO PLANIFIKATU BEHARKO DUGU (SI QUEREMOS HACER UNOS PANELES ADECUADOS, TENEMOS QUE PLANIFICAR BIEN EL TRABAJO):

➔ Nolako panelak egingo ditugu?

- Panelak nolakoak izango diren argituko dugu: tamaina, egitura...
- Nolako edukiak sartuko ditugun erabakiko dugu. Horretarako, taldeetan sortutako ideiak aztertu eta egokienak aukeratu beharko ditugu: testigantzak, efemerideak, euskarari buruzko berriak...
- Panelak non jarriko ditugun erabakiko dugu: kalean, euskaltegiaren sarreran...

➔ Nola antolatuko dugu lana?

- Panelak nork egingo dituen erabakiko dugu: euskaltegiko beste ikasleekin batera egingo ditugu ala talde bakoitzak berea egingo du? Beste taldeekin egitea erabakiz gero, nola koordinatuko gara? Zer egingo du ikastalde bakoitzak?
- Gure ikastaldeak egingo duena argituta-koan (panel osoa edo panelerako ekarpen jakin batzuk), egutegia prestatuko dugu, hau da, egun bakoitzean nork zer egingo duen.

➔ ¿Qué tipo de paneles haremos?

- Aclararemos qué tipo de paneles serán: tamaño, estructura...
- Decidiremos qué tipo de contenidos añadiremos. Para ello, analizaremos las ideas que surjan en los grupos y elegiremos las convenientes: testimonios, efemérides, noticias sobre el euskera...
- Decidiremos dónde poner los paneles: en la calle, en la entrada del euskaltegi...

➔ ¿Cómo organizaremos el trabajo?

- Decidiremos quién hará los paneles: ¿los haremos con otr@s alumn@s del euskaltegi, o cada grupo hará el suyo? Si decidimos hacerlo con otro grupo, ¿cómo nos coordinaremos? ¿Qué hará cada grupo?
- Después de aclarar qué hará nuestro grupo (todo el panel o unas determinadas aportaciones), prepararemos el calendario, es decir, decidiremos quién va a realizar cada trabajo y cuándo.

Garatu

AZKENIK, LANA EGITEKO ORDUA IRITSI ZAIGU (PARA TERMINAR, NOS HA LLEGADO LA HORA DE REALIZAR EL TRABAJO):

➔ Bakoitzak egokitu zaion lana egingo du (testigantza idatzi, euskarari buruzko berriak bilatu, efemerideak bilatu eta euskaraz idatzi...).

➔ Lanak talde handian berrikusi eta zuzenduko ditugu.

➔ Lanak zuzendutakoan, garbira pasatuko ditugu eta panelean jarriko ditugu. Testuez gain, irudiak ere sartzea komeni da, panela ikusgarriagoa izan dadin.

➔ 1. Cada cual hará su trabajo (escribir el testimonio, buscar las noticias sobre el euskera, buscar efemérides y escribirlas en euskera...).

➔ Repasaremos los trabajos en el grupo y los corregiremos.

➔ Después de corregir los trabajos, los pasaremos a limpio y los pondremos en el panel. A parte de los textos, conviene añadir imágenes para que el panel sea más espectacular.



IKASLEEI PANELAK EGITEN LAGUNTZEKO IDEIAK:

a. Hausnarketan laguntzeko:

Ikasleek panelean zer jarri erabaki beharko dute. Ereduan eskainitakoez gain, ideiarik sortzen ez bada edo horretan zailtasunak sumatzen badizkiezu, honelakoak proposa diezazkiekezu:

- ➔ Korrikari buruzko berriak (prentsan aurki dezaketen edozein berri, artikulua, iragarki...).
- ➔ Korrika martxan dabilen bitartean (martxoaren 30etik apirilaren 9ra), lasterketari buruzko berri interesgarriak: non dabilen, gertatutako bitxikeriaren bat...
- ➔ Aurreko Korriketako oroitzapenak (norbere oroitzapenak edo beste inorenak).
- ➔ Aurreko Korriketako argazkiak eta horiei buruzko iruzkinak.
- ➔ Korrika edo euskarari buruzko bertsoak, koplak...
- ➔ Korrika edo euskarari buruzko komikiak (prentsan edo Interneten bilatuak ala norberak sortuak).
- ➔ Euskararen egoerari buruzko datu interesgarriak: erabilera, bilakaera, egoera gure herrian...

b. Planifikazioan laguntzeko:

Lana euskaltegi-mailan edo beste ikastalde batzuekin batera egin nahi bada, komeni da ikasleekin gaiaz mintzatu aurretik beste taldeetako irakasleekin aukerak aztertzea.





ZUZENKETA-ORRIA

➔ Falta ziren aditz laguntzaileak letra lodiz idatzita daude. Azpimarratutako atalak testu idatziko datu okerrak dira; datu zuzenak, berriz, parentesien artean dituzu.

Dani naiz, As Pontesekoa, eta 39 urte ditut.

As Pontes Galizian **dago**. A Coruña ondoko herri txiki bat da. Euskal Herrira orain dela *21 urte (20 urte)* etorri **nintzen** kazetaritza ikastera. Beraz, Galizian baino denbora gehiago pasatu dut hemen. Hasiera batean, ez nuen hemen gelditzeko asmorik, baina Radio Euskadin hasi nintzen lanean, eta ordutik Bilbon bizi **naiz**. Egun, goizero "Boulevard" irratsaioa prestatzen dut, eta, noizean behin telebistan ere gauzak egiten **ditut**. Azkena izan da "El lector de huesos" saioa, Paco Etxeberriarekin batera.

Arnau izeneko seme bat **daukat**, hiru urtekoa.

Euskara ikasten 2001. urtean (*2002. urtean*) hasi **nintzen**. AEKn, bi ordu egunean. Bostgarren urratsera arte jarraitu **nuen**, baina orduan "Ganbara" irratsaioa gidatzen hasi nintzenez, akabo klaseak. Laster, bueltatu nintzen euskara ikastera, AEKn bertan (*Eitb bertan*), irakasle batekin.

Arnau euskaraz bizi da eskolan, eta seguru nago bizitzan zehar euskaraz (*hainbat hizkuntzatan*) biziko dela. Eta nik nahi dut Arnaurekin euskaraz hitz egin, argi dudalako nire semeak euskara jakin behar duela. Egunen batean, berak erabakiko **du** zein hizkuntza erabiliko duen, baina bitartean ikasiko du, eta gure artean mintzapraktika egingo dugu!

Ikaragarri gustatzen **zait** heavy musika, E.H. Sukarra (*Su ta Gar*) da nire euskal talde kutuna, eta ulertu nahi dut zer esaten duten haien abestietan.

Hori bai, nire eguneroko bizitza gaztelaniaz egiten **dit** batez ere. Bilbon bizi **naiz**, eta hiri honetan oso erraza da euskararik gabe bizitzea.

Musikak ematen dit bizitzeko energia. Hamar urte (*Hamabi*) nituenetik entzuten **dit** Heavy Metala, eta konturatu naiz abestiek munduari buruzko ikuspegi pila bat ematen dituztela. Ikuspegi horiek interesatzen **zaizkit** niri, eta hemen, asko, euskarazkoak dira. Euskaraz ari dira sortzen gauza modernoak eta freskagarriak, baina gero, ez zaie oihartzunik ematen gure irratietan, telebistetan edo egunkarietan.

Kultur apustu batzuk klandestinitatean daude. Eta nik odola, burdina eta adarrak nahi ditut, baita euskaraz ere.

Niretzat, heavyak euskara aberatsagoa egiten du, koloretsuagoa, eta gazte pila bat erakartzen ditu. Euskadi (*Gaztea*) irratian ezin **da** heavya entzun, eta aukera horrekin, beste erreferentzia batzuk sortzen **dira**, batez ere, ingelesez.